

Udal talde politikoaren iritzia



365 EGUN EUSKARAZ

Igande honetan, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu; gure hizkuntza omentzeko eta sustatzeko eguna da, euskal gizartearen ondarea baita euskara, ezinbestekoa Euskadiko historian eta kulturaren. Baina, horrez gain, hizkuntza bizi bat ere bada, hizkuntza aniztasunaren ikur gisa zaindu eta sustatu beharrekoa. Egun horretan, eta inguruko egunetan, ikusgai egingo dira Euskadi osoan eta Getxon ere egunero-egunero erakundeek eta euskararen alorreko gizarte-ehun zabalak garatutako hainbat jarduera, ekimen, proiektu, programa eta ekintza, gure herria kolaborazioaren erreferentzia baita Euskadi osoan. 365 egun euskaraz lema

bat da, erronka eta helburu bihurtu dena. Izan ere, guztiok egiten dugulan euskararen erabilera normalizatzeko gure eguneroko bizi moduan. Milaka urteko hizkuntza bat da, eta bizirik irten da jazarpenei eta zapalkuntzei aurre eginez, belaunaldien arteko transmisioari esker, gaurdaino. Euskara, kutsu epikoa eta erromantikoa alde batera utziz, la-

nerako, ikasketetarako eta ikerketetarako hizkuntza ere bada, eta, horrez gain, guztion artean sustatzen dugu,

erabilera sozial eta egunerokoa izan dezan.

Getxoko EAJ-PNVk herritarrekin hartu zuen hauteskunde-konpromisoan nabarmendu egin zuen gure hizkuntzaren normalizazioaren alde egindako apustua, Udalaren eta gizarte getxoztarraren ahalegina eta elkarlana bultzatuz, euskara gure eguneroko bizitzan erabiltzea sustatzeko. Hona hemen adibide nabarmen batzuk: euskararen familia-transmisioaren programa; baliabide ekonomiko gutxien dituztenek hizkuntza ikasteko laguntzen programa; Getxo Kirolakekin egindako proiektu komuna, kirol jarduerak euskaraz eskaintzekoa, eta abar. Konpromisoa beteta: 365 egun euskaraz.



PSE-EE
PSOE

BALIOETAN HEZTEKO
AZAROAREN 25 BAT



LORTU DUGU!

Urtetik urtera, azaroaren 25ak garrantzi handiagoa hartzen du gaurko gizartearen emakumearen aurkako indarkeriak dakarren gaitzaren aurkako borrokan. Gaur egun badakigu etorkizuneko gizartearen panorama etsigarria zaigula; hiru haurretik bategi normalizatu egin du bikote barruko indarkeria, eta antzeko proportzio batek uste du ideologia politiko baten interesen alde puztu dela kontua, edo, zuzenean, eraso matxistak immigrazioarekin lotzen ditu. Azken urteotako hezkuntzako murrizketek, telebistako eredu penagarriek edo eraso sexualen errua alkoholari edo emakumeari egozten dieten kanpaina desagokiak ez diote laguntzen balioekin, estereotipoekin, genero-rolen eta abarrekin horren iragazkorak diren haur eta nerabeei. Horren guztiaren jakitun, Getxoko Udalak beste urte batez egon nahi izan du lehen lerroan berdintasun kontuetan, eta horretarako abian jarri ditu hainbat ekimen, eta babestu egin ditu beste erakunde batzuek abiarazitako programak, Emakundek esaterako; horietako askok zuzenean gazteak hartu dituzte xede. Sozialistonek ustez, "matxismoa transmisio sozialeko gaitz bat da, eta gaixotasun haren txertoa hezkuntzan aurki daiteke".

PNV + PSOE + EH BILDU QUIEREN IMPONERTE ESTO:
• Tener los contenedores sucios en tu portal
• Sacar la basura a la hora que te digan... o pagar
¡¡Te cuesta un millón y medio de euros más que el sistema tradicional!!

SÍGUENOS Y CONTACTA CON NOSOTROS EN:
www.ppgetxo.net - e-mail: pp@getxo.eus
@PPGetxo Populares de Getxo
Tels. 94 466 02 85 / 94 460 11 11

Alkatea tematu egin zen, bizilagunak kexatu egin ziren, eta guk errepikatu egin genuen: "atez atekoa ez zen ongi etorria". PPn, inguruko bizilagunekin batera, sistema horren aurka egin genuen, gure ustez garestia, zikina eta gogaikarria zelako. Izan ere, gauzak erraztea baino gehiago, haren asmo bakarra zen Udalaren betebeharrak bat bizilagunei egotea. Bizilagunak berak arduratu behar zuen zaborra edukiontzian biltzeaz, kalea ordu jakin batean ateratzeaz, eta gero edukiontzia berriz gordetzeaz. Zorionez, aurka egindako lanek, bizilagunekin batera, fruituak eman dituzte, eta Alkateak garaiz aldatu du iritzia: atez atekoa ez da ezarriko, azkenean.



GETXOKO LANAK, ZERUETAN

Duela hilabetetik gora, eskatu zen Algortako Getxo Antzokian eta Romoko Kultur Etxean egindako obra faraonikoetan egindako gastuen xehatze bat. Nahikoa da begirada bat botatzea Getxoberriko azalean jaso zen laburpen bati; bertan, argi ikusten da Getxo Antzokiko eta Musika Eskolako ekipamenduetan 6 milioi eurotik gora joan direla... Eta oraindik ez dira ireki, ez Antzokia, ez Kultur E-

txea, eta ez dugu bietako bakarraren irekiera datarik ere. 2019ko hauteskundeetarako gordeko al du ba karta hori gobernu taldeak? Batek daki...

Guztira, 63 MILIOI EURO gastatu ditugu oraingoz, eta "harritu" egiten gaitu pentsatzeak gero ez dugula dirurik (edo hori esaten digute) Romoko gure adinekoen etxeak konpontzeko, edo herriko espaloiak zabalitzen inbertitzeko, herria erosoago eta irisgarriagoa izan dadin, beste zenbait beharren artean. Zein herri mota ari gara eraikitzen? / Kontaktua: guk@getxo.eus; 944660290.



Cs

ROMO. GABONETAN
APARKATZEA

Edozein romotarrerak daki zeinen zaila den norberaren ibilgailua aparkatzea Gabon garaian. Hori kontuan hartuta, udal talde honek moztio bat aurkeztu du, Romo Eskola Publikoko patioa aparkamendu gisa irekitzeko Gabonetako garai osoan. Gure ustez, Udalak egiaz arindu nahi baldin badu aparkatzeko arazo konpondu, jendea beste herri batzuetatik Getxora gerturarazi eta saltzaileen mesedetan jende fluxua handitu, hobeto kudeatu behar du eskuragarri dugun espazioa; hori ez du egin orain arte. [@CsGetxo](https://twitter.com/CsGetxo) / 944660291



EAJK EZ DU BETEKO ZERGA ETA TASEN ITUNA PPREN MESEDETAN

Gobernu taldeak (EAJ-PSE) ez digu oraindik oposizio alderdi 2018. urterako zerga eta tasek proposamenik aurkeztu. Ondorioz 2018. urterako ez da zerga eta tasek eguneraketarik egongo, ez eta horiek hobetzeko aukera ere. Tasa eta zergen prozedurak berak hilabete luzeko izapideak eskatzen ditu eta tasa eta zerga garrantzitsuetan ordenantza aldaketa indarrean sartu beharko litzateke 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen eragin kortasuna izateko. Gobernu taldearen jarreraren ondorioak larriak dira. Izan ere, ezin izan-

go zaie HOZean etxebizitza hutsei gainkargarik ezarri alokairua sustatzeko. Oztopatu eta atzeratzen ari dira obra lizentziatutako ordenantzan jarri daitezken hoberiak eta aldaketak,



adibidez, birgaitze lanak eta kooperatibak laguntzeko. Gauza bera gertatzen da birziklapenaren sustapenean ezin izango baita, garaiz ezarri hobaririk zaborra bildu, tratatu eta garraiatzeko tasan ontzi marroien erabilera eta abar luze bat.

Badirudi udal gobernu Alderdi Popularrarekin aurrekontu akordioa bilatzeko bidea errazten ari dela, edo okerragoa izan daitekeena, 2017. urtean egin zuten bezala, aurrekontuz kanpoko ezkutuko akordioa lantzen ari direla.